# 2018ko IRAILAREN 19ko UDALBATZARRA

# PLENO DE 19 DE SEPTIEMBRE DE 2018

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:
Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:
AITOR IANTZI GOIENETXE (lana/trabajo), GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI (lana/trabajo), JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA (lana/trabajo)

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2018-09-19
Ordua: 20:00
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 19-09-2018
Hora: 20:20
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

2018.eko abuztuaren 22an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

Vista el acta de la sesión celebrada el día 22 de agosto de 2018, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIERA BATEZ ONESTEA.

*Idazkariak espedientea azaldu du eta horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu*

2.- APROBACIÓN INICIAL ORDENANZA REGULADORA DE LA ADMINISTRACION ELECTRONICA.

*La Secretaria explica el expediente y tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

*dute:*

Ikusirik, Administrazio elektronikoa arautzen duen Berako Udal Ordenantza onesteko espedientea.

Visto expediente de aprobación de la Ordenanza reguladora de la Administración electrónica del Ayuntamiento de Bera.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 133. artikuluak ezarritakoari jarraikiz, aurrez ikusitako kontsulta publikoa egin ondoren ez da inolako iritzirik aurkeztu.

En cumplimiento del artículo 133 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo común, realizada la consulta pública previa establecida no se ha presentado opinión alguna.

Era berean, Udal web orrian ordenantzaren aldaketaren proiektua argitaraturik, emandako entzunaldiaren epean, inork ez du ekarpenik aurkeztu.

Igualmente, publicado el proyecto de modificación de la ordenanza en el portal web del Ayuntamiento durante el plazo de audiencia no se ha presentado aportación alguna.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluekin bat etorriz.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 325 y 326 de la Ley Foral 6/1990, de Administración Local de Navarra.

ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatu Administrazio elektronikoa arautzen duen Berako Udal Ordenantza hasiera batez onestea.

2) Ordenantza hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharrak jartzeko aukera izan dezaten.

3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la Administración electrónica del Ayuntamiento de Bera.

2) Exponer al público dicha ordenanza, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas legítimas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

3.- NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ZBK.KO HERRI MENDIAN, “INTZOLA” ETA “SAGASTI” PARAJEETAKO OHIAN-

3.- SUBASTA FORESTAL APROVECHAMIENTO FORESTAL EN MONTE COMUNAL Nº 638, PARAJES DE “INTZOLA” Y “SAGASTI” (certificación fo-

APROBETXAMENDUAREN ENKANTEA (74/2012 PEFC ohian ziurtagiria): CENTRAL FORESTAL SL-ari ESLEITZEA.

restal PEFC 74/2012): ADJUDICACIÓN A CENTRAL FORESTAL SL.

*Idazkariak espedientea azaldu eta, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:*

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo*:

Ikusirik, Nafarroako 638. mendian, Nafarroako onura publikoko mendien Katalogokoa, “Intzola” eta “Sagasti” parajeetako oihan-aprobetxamenduen espedientea (74/2012 PEFC ohian ziurtagiria):

Visto expediente de aprovechamientos forestales en el monte comunal nº 638 del catálogo de montes de utilidad pública de Navarra, parajes “Intzola” y “Sagasti” (certificación forestal PEFC 74/2012):

| Lote | Paraje | Especie forestal | Nº pies | Volumen de madera m3 | Volumen de tronquillo y embalaje m3 | Volumen total m3 | Valoración |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Intzola Sagasti | Pino radiata Roble americano | 1.794 | 3.271,71 | 414,95 | 3.686,66 | 116.612,53 € |

2018ko apirilaren 11n Udalak eginiko Osoko Bilkuran oihan-aprobetxamendu hori enkantean saltzea erabaki zuen eta, modu berean, enkante hau hutsik gelditu ezkero %10 eta %20 merkeago ateratzea, bigarren zein hirugarren enkantean, hurrenez hurren,.

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 11 de abril acordó sacar a subasta la venta de dicho lote forestal y, si aquélla quedara desierta, sacarlo con el 10% y 20% de rebaja, en segunda y tercera subasta, respectivamente.

Ikusirik, joan den ekainaren 22 eta uztailaren 10eko aktak non enkante honetan Embalajes Martínez sl eta Central Forestal sa aurkeztutako enpresak onartzea erabaki zuen.

Vista las actas de la Mesa de Contratación del pasado 22 de junio y 10 de julio en la que se acuerda admitir en la subasta a las empresas presentadas, Embalajes Martínez sl y Central Forestal sa.

Ikusirik, joan den uztailaren 13ko Kontratazio Mahaiaren akta, non aprobetxamendu honen lotea Central Forestal sl enpresari behin behinekoz esleitu zion.

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 13 de julio en la que se adjudica provisionalmente el lote del aprovechamiento forestal de esta subasta a la empresa Central Forestal sa.

Izanik, sexteo-epean ez dela hobekuntza ekonomikorik aurkeztu izan.

Siendo que en el plazo de sexteo no ha sido presentada mejora económica alguna.

Izanik, baldintza administratiboen pleguaren 10. oinarrian jarritako dokumentazioa Central

Teniendo en cuenta que la empresa Central Forestal sa ha presentado la documentación

Forestal sa enpresak aurkeztu duela.

ERABAKI DUTE:

1) Enkante honen ohian aprobetxamenduaren lotea (PEFC ohian ziurtagiria), lehen adierazitakoa, eskainitako kopuruan, hau da, 145.000 eurotan, (BEZ gabe), Central Forestal sa enpresari esleitzea.

2) Esleipen hau, Nafarroako Gobernuko Natur Ingurunearen Zerbitzuaren baldintza teknikoa eta Udalak onartutako baldintza-pleguari jarraikiz izanen da. Baldintza-plegu hauek akordio honekin batera bidaliko zaizkio interesatuari.

3) Baldintza administratiboen 11. klausulari jarraikiz esleipen hau jasotzean eskainitako prezioaren % 25a ordaindu behar duela esleipendunari adieraztea.

4) Era berean, 4. klausularen arabera ohian aprobetxamendua hasi baino lehen esleipen-prezioaren %35aren abala aurkeztu behar dutela gogoraraztea.

5) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Ingurune Naturalaren Zerbitzuaren Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atalari, aurkeztutako enpresei eta esleipendunari jakinaraztea.

exigida en la cláusula 10 del pliego de condiciones administrativas.

SE ACUERDA:

1) Adjudicar a la empresa Central Forestal sa, en la cantidad ofertada de 145.000 euros (sin IVA), el lote del aprovechamiento forestal de esta subasta (certificación forestal PEFC), antes reseñado.

2) Esta adjudicación se hace de acuerdo al pliego de condiciones técnicas del Servicio de Medio Natural del Gobierno de Navarra y al aprobado, al efecto, por el Ayuntamiento, cuyas copias se adjuntarán a la notificación de este acuerdo.

3) Comunicar a la empresa adjudicataria que de acuerdo con la cláusula 11 del pliego de condiciones administrativas deberá realizar el pago correspondiente al 25% del precio ofertado al recibo de esta adjudicación.

4) Igualmente, recordarle que según la cláusula 4 deberán presentar aval del 35% del precio de licitación antes del inicio del aprovechamiento.

5) Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria, a las empresas participantes y a la Sección de Gestión de la Comarca Atlántica del Servicio de Medio Natural del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.

4.- KATASTROAREN ALDAKETA: 4. POLIGONOKO 206. LURZATI PARTIKULARRA (BEOLA BENTA) ETA 17. ZEIN 189. UDAL LURZATIAK (IBARDIN).

*Idazkariak espedientea azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

Pasa den ekainaren 13an, Udalak erabaki zuen

4.- MODIFICACIÓN CATASTRAL: PARCELA PARTICULAR (VENTA BEOLA) 206 Y PARCELAS MUNICIPALES 17 Y 189 DEL POLÍGONO 4 (IBARDIN).

*Después de explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Con fecha 13 de junio pasado el Ayuntamiento

2018ko apirilaren 30ean eginiko txostenean katastroaren teknikoak proposatutako katastroaren aldaketa, 4. poligonoko 17. lur-zatiari zegokiona, onestea.

acordó aprobar la modificación catastral propuesta por el técnico de catastro en el informe de 30 de abril de 2018, correspondiente a la parcela municipal 17 del polígono 4.

Ikusirik, Catastro Estudio 5 sl enpresako teknikoak (katastrokoa) 2018ko abuztuaren 29an eginiko txostena. Txosten honetan aipatu du, katastroko aldaketa egiteko apirilaren 30ean berak eginiko txostenean 4. poligonoko 17. udal lur-zatiari ukitzen ziola adierazi bazuen ere, berez, 4. poligonoko 189. udal lur-zatiari, ere, ukitzen diola.

Visto informe del técnico de catastro de la empresa Catastros-Estudio 5 sl, de fecha 29 de agosto, en el que manifiesta que en el informe emitido por él, de fecha 30 de abril pasado, señalaba que en la modificación catastral a realizar resultaba afectada la parcela municipal 17 del polígono 4 cuando, también, resulta afectada la parcela municipal 189 del polígono 4.

Kontuan hartuz, 2018ko ekainaren 13an hartutako erabakian, soilik, 4. poligonoko 17. udal lur-zatia aipatu zela.

Teniendo en cuenta que el acuerdo adoptado el 13 de junio de 2018, solamente, se refería a la parcela municipal 17 del polígono 4.

Kontuan hartuz, lehen aipatu txostenei jarraikiz, katastroan egin behar den egokitze horrek Udalarena diren 4. poligonoko 17. lur-zatiari zein 189. lur-zatiari, ukitzen diela.

Teniendo en cuenta que con la corrección a realizar en el catastro se ven afectadas las parcelas 17 y 189 del polígono 4, de titularidad municipal, según consta en los informes antes citados.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2018ko apirilaren 30ean eta abuztuaren 29an eginiko txostenetan katastroaren teknikoak proposatutako katastroaren aldaketa, 4. poligonoko 17. udal lur-zatiari zein 189. lur-zatiari dagokiena, onestea.

1) Aprobar la modificación catastral propuesta por el técnico de catastro en los informes de 30 de abril y 29 de agosto de 2018, correspondiente a las parcelas municipales 17 y 189 del polígono 4.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Aberastasunaren Zerbitzura bidaltzea behar diren ondorioetarako.

2) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

## 5.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

## 5.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: B18/2018tik B20/2018ra.

1) Bandos: del B18/2018 al B20/2018.

2) Ebazpenak: 2018ko abuztuaren 17ko 148. ebazpenetik 2018ko irailaren 12ko 164..era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 148 de 17 de agosto de 2018 a la nº 164 de 12 de septiembre de 2018.

*Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hauek tratatu dituzte:*

*Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:*

6.- “BERAKO KANPOKO ARGITERI PUBLIKOAREN URRUÑA ETA BIDASOAKO KOADROAK BERRITZEA” EGITEKO PROIEKTUAREN AURREKONTUA ALDATZEA.

6.- MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL PROYECTO DE “RENOVACION DE LOS CUADROS BIDASOA Y URRUÑA DEL ALUMBRADO PUBLICO EXTERIOR DE BERA”.

*Alkateak zera azaldu du:*
*Obra hau kontratatzeko bi aldiz egin dira deialdiak baino interesa agertu duten enpresek diote aurrekontua oso juxtua dagoela eta ezin direla sartu lizitazioan.*

*Horregatik, proiektuaren egilearekin egon ondoren aurrekontua %10a igotzea eta Kontratazio Atarian jakinaraztea erabaki ditu.*

*Hori dela eta, orain, %10eko igoerarekin aurrekontu berria onartu behar da.*

*El Alcalde explica lo siguiente:*
*Para la contratación de esta obra se han realizado dos convocatorias pero las empresas que han mostrado interés indican que el presupuesto está muy ajustado y no pueden entrar en la licitación.*
*Por ello, tras consultar con el redactor del proyecto se ha decidido una subida del 10% en el presupuesto y anunciarlo en el Portal de Contratación.*
*Es por lo que, ahora, debería aprobarse el nuevo presupuesto con la subida del 10%.*

“Berako kanpoko argiteria publikoaren Urruña eta Bidasoako koadroak berritzea” izeneko exekuzio proiektua gauzatzeko obren kontrataziorako proposamenak aurkezteko epea 2018-ko abuztuaren 13an bukatu zen eta ez zen inor aurkeztu.

Kontratu Publikoen Foru Legearen 80.5 artikuluak ezartzen duenari jarraikiz Alkateak bi eskaintza, bederen, lortzeko enpresa batzuekin kudeaketa egin ondoren eskaintzak aurkezteko epea luzatu zuen abuztuaren 21 arte. Baino, epe berri hau bukatuta ez da inor aurkeztu.

Con fecha 13 de agosto de 2018 finalizado el plazo de presentación de proposiciones para las obras de ejecución del Proyecto de “Renovación de los cuadros de Bidasoa y Urruña del alumbrado público exterior de Bera” no se presentó ninguna oferta.

Según lo establecido en el artículo 80.5 de la Ley Foral de Contratos Públicos el Alcalde llevó a cabo una serie de gestiones con diferentes empresas para conseguir al menos dos ofertas ampliando el plazo de presentación de éstas hasta el 21 de agosto. Sin embargo, finalizado este nuevo plazo, no se ha presentado ninguna.

Interesa duten enpresek adierazi dute aurrekontua baxua dagoela eta ezin dutela proposamenik aurkeztu.

Arazo hau proiektua egin zuenarekin azterturik, aurrekontua %10a igotzea erabaki da.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) “Berako kanpoko argiteria publikoaren Urruña eta Bidasoako koadroak berritzea” izeneko exekuzio proiektuaren aurrekontuaren aldaketa, 2018ko irailekoa, onestea.

2) Aurrekontuaren aldaketa hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea, behar diren ondorioetarako.

Las empresas interesadas manifestaron que el presupuesto está muy ajustado y no pueden presentar oferta.

Analizado el tema con el redactor del proyecto se ha decidido subir el presupuesto un 10%.

Por todo ello, SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación del presupuesto del Proyecto de “Renovación de los cuadros de Bidasoa y Urruña del alumbrado público exterior de Bera”, de fecha septiembre de 2018.

2) Remitir esta modificación del presupuesto a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

7.- ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

*Aho batez, honako erabakia hartu dute:*

Ikusirik, Antsoaingo Udalak bidalitako adierazpen instituzionala, honako testua duena:

**“ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Jaiak direla eta gure herriko Rafael Alberti plazan jarritako esku gorri erraldoiaren aurkako erasoa irmoki salatu nahi du Antsoaingo Udalak. Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkar lanean, Berdintasun Arloak ditugun hainbat Tokiko Erakundek egiten dugun lanaren zati bat da esku hau, gure herriari Iruñeko Udalak utzitakoa.

7.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ANSOAIN.

*Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Vista declaración institucional remitida por el Ayuntamiento de Ansoain, cuyo texto literal es el siguiente:

“ DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ANSOAIN

El Ayuntamiento de Antsoain/Ansoáin manifiesta su más enérgico rechazo al grave ataque producido en la madrugada de hoy sobre la mano roja gigante, instalada en la Plaza Rafael Alberti de nuestro pueblo, con motivo de las fiestas. Esta mano, cedida a nuestro pueblo por el Ayuntamiento de Pamplona, forma parte de un trabajo en red que distintas Entidades Locales con áreas de igualdad llevamos realizando desde hace ya varios años en colaboración con el Instituto

Navarro para la Igualdad.

Erasotua izan den eskuak Nafarroako jendartearen emakumeon indarkeriaren kontrako konpromisoa ordezkatzen du, eta Udalaren ustez, nahita egindako eta aurrez pentsatutako eraso matxista da. Horrexegatik, Udalbatzako udal talde guztiek onartutako eraso sexisten aurkako protokoloa martxan jarri da.

El Ayuntamiento entiende que este ataque, deliberado y premeditado, es una agresión machista directa sobre un símbolo que representa el compromiso de la sociedad navarra frente a la violencia contra las mujeres, y por ello ha activado su Protocolo de actuación frente a agresiones sexistas, aprobado por unanimidad de todos los grupos municipales en Pleno.

Kezkaz begiratzen diegu horrelako gertakari bortitzei mugimendu feministak eta jendarteak bere osotasunean egindako lorpenenen aurrean erantzuten duen egitura patriarkal batean gertatzen baitira. Lorpen hauek benetan bermatzen dituzte emakumeon eskubide zibilak eta jendarte osoaren onurako dira, izan ere, giza eskubideen garapen handiagoa ahalbidetzen dute. Hori dela eta, gizon heldu eta gazteei dei berezia egiten diegu lorpen hauen parte izan daitezen eta ez ditzaten jarrera eta eraso matxistak babestu; era berean, emakume heldu eta gazteak animatu nahi ditugu edozein erasoren aurrean erantzutera eta beste pertsonen laguntza bilatzera.

Asistimos con preocupación a acciones violentas como esta, que se ejercen en una estructura patriarcal que reacciona frente a los avances alcanzados desde los movimientos feministas y la sociedad al completo. Avances que permiten el ejercicio real y efectivo de los derechos civiles de las mujeres, y que benefician a la sociedad en su conjunto al suponer un mayor desarrollo de los derechos humanos. Por ello, hacemos un llamamiento especial a los hombres adultos y jóvenes, para que contribuyan a estos logros y no sean cómplices de actitudes y agresiones machistas; y animamos además a las mujeres jóvenes y adultas a que respondan a todo tipo de agresiones, y a que busquen el apoyo de otras personas.

Beraz, Antsoaingo herritarrei dei egiten diegu datorren larunbatean, irailaren 15ean, Antsoaingo Rafael Alberti plazan erasotua izan den esku gorria konpontzeko egingo den talde ekintzan parte hartzera. Bertaratuko diren pertsona guztien artean eragindako kalteak konponduko ditugu.

Por lo tanto, convocamos a toda la ciudadanía de Ansoáin a una acción colectiva de reparación a este símbolo para este sábado 15 de septiembre a las 11:30 en la Plaza Rafael Alberti de Ansoáin. En este acto simbólico repararemos los daños causados a la mano entre todas las personas asistentes.

Era berean adierazi nahi dugu, gertakari honek berdintasunaren alde eta bortizkeria matxistaren kontrako lanean jarraitzeko beharra berresten duela, uste baitugu, hau dela emakume guztion giza eskubideen bermea lortzeko bide bakarra, gure herrian eta baita munduan ere.

Queremos manifestar además que este hecho nos reafirma en nuestro compromiso para seguir desarrollando acciones a favor de la igualdad y contra la violencia machista, entendiendo que es este el único camino para alcanzar la garantía de derechos humanos de todas las mujeres, en nuestro pueblo y en todo el mundo.

Ez Antsoainen, ez beste inon, eraso sexistarik ez!”

¡Ni en Ansoáin ni en ningún otro lugar, no agresiones sexistas!”

ERABAKI DUTE:

1) Antsoaingo Udalak bidalitako Adierazpen instituzionalari, herri honetako Rafael Alberti plazan jarritako esku gorri erraldoiaren aurkako eraso larria salatzen duenari, atxikitzea.

2) Erabaki hau Antsoaingo Udalari bidaltzea.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:35etan.

SE ACUERDA:

1) Adherirse a la Declaración institucional remitida por el Ayuntamiento de Ansoain, en la que se rechaza el grave ataque producido sobre la mano roja gigante, instalada en la Plaza Rafael Alberti de dicha localidad.

2) Remitir este acuerdo al Ayuntamiento de Ansoain.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:35 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta